



**TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO**

# hitza



**Ostirala  
2008-02-08**

VIURTEA 1.357.ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

[WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO](http://WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO)

## Gaur ekingo diote Leitzan Nafarroako Bertsolari Txapelketari

**LEITZARRAK** Diego Riaño eta Migel Mari Elozegi 'Luze' izanen dira aurten eskualdeko bi ordezkariak

**GAURKO SAIOA** Diego Riaño ariko da Aurreran eta «helburua finalerdietara heltzea» dela dio bertsolariak 7



L. GARCIA

**KORO DEL POZO** PSIKOLOGOA

«Haurrak gehiago ulertu ahal izatea lasaitasun handia ematen die gurasoei»

**TOLOSA** Tolosako Udalak antolatu duen guraso eskolaren dinamizatzaileetarikoa bat da donostiarra 4

## Inauterien ajeari aurre egiteko, kultur eskaintza oparoa hilabete osoan

**TOLOSA** Kultur ekintza eta jarduerarik ez da faltako herrian Inauterien ostean: zinema, antzerkia eta haur programazioa, esaterako 3

## 608.721 euro baliatuko dituzte aurtengoan inbertsioetarako

**AMEZKETA** Kultur Etxeko inbertsio gastuaren urteanitzeko izaera onartuko dute, ahal bada 5

**Inaxio Perurena**  
230 kiloko harria esku bakarrez jasotzen saiatuko da

**LEITZA** Etzi egingo du saiakera leitzarrak, Getxon antolatu duten jaialdian; aizkolariak ere izango dira 6

**Inauterietan**  
25.000 lagun baino gehiagok erabili dute tren zerbitzua

**TOLOSALDEA** RENFERen datuen arabera iazko datuekin alderatuz, %6,7 igo da erabiltzaile kopurua 2

## Gaurtik etzira ekitaldiz beteriko asteburua, San Blas jaietan

**Gizartea** » Gaur Disko Festa izango da arratsaldean; bihar eta etzi egun osoan izango da zertaz gozatua.

### ERREDAKZIOA

Pasa den igandean izan zen San Blas Eguna, eta San Blas auzoan Meza Nagusia egin zuten urtero bezala. Dena den, San Blas jaiek atzeratzea erabaki dute aurtengoa Inauterietako egunetan ez egiteagatik, eta pasa den igandeko ekitaldiaren ostean, gaur izango dute jarraipena jaiek.

Gaurkoan arratsaldetik aurrera hasiko da festa giroa San Blas, eta musikak hartuko du protagonismoa. Bihar eta etzi, berriz, ekitaldi ugari izango dira egun osoan zehar: Toka Lehiaketak, trikitixa, ume jolasak, dantza saioa, bertsolariak, herri kirolak...

Eta noski, ekitaldi hauetaz guztietaz gain, ezin ditugu ahaztu hain ohikoak diren erroskilak. Hauek auzoan jarriko dituzte salgai, eta ziur jendea erruz joaten dela erostera, urtero moduan. Beraz, festa nahi duenak aukera badu San Blasen asteburu honetan.



Pasa den urtean ere Unai Otaño izan zen aizkorarekin lehian. N. LIZARTZA

### » EGITARAUUA

**Otsailak 8, gaur**  
■ 18:30-21:30. Disko Festa.

**Otsailak 9, bihar**  
■ 12:00. Ume jolasak.  
■ 12:30. Toka Lehiaketa auzoko-entzat eta elkartekoentzat.  
■ 16:00. Toka Lehiaketa probintziakoentzat.  
■ 18:00. Elustondo anai-arrebak.

**Otsailak 10, etzi**  
■ 09:00. Diana *Konponezinak* txarngarekin.

■ 11:00. Meza auzoko eta bazkide hildakoen alde.  
■ 12:00. Amarozko dantzarien saioa.  
■ 12:30. Aizkolarien arteko lehia: Unai Otaño eta Fausto Mugerza ariko dira nor baino nor.  
■ 13:00. Bertsolarien saioa, Egaña eta Peñagarikanorekin.  
■ 18:00. Bertsolarien bigarren saioa.  
■ 18:00-21:30. Elustondo anai-arrebak trikitilari taldearen doinuak.

## Asteburuko kirol jarduera

**Kirola** » Gaurtik astelehenera arte pilota, saskibalo, futbol eta areto futbol partidetan, aukera handia izango da.

### ERREDAKZIOA

Hirugarren mailako Tolosa futbol taldeak Zamudioren aurka jokatuko du partida bihar, 16:30ean, Berazubín. Beotibar pilotalekuan, berriz, astelehenean, Bengoetxea VI-Patxi Ruiz eta Olazabal-Lasaren arteko lehia izango da.

Usabal kiroldegian gaur areto futboleko Gipuzkoako ligako par-

tida izango da, emakumeen artekoa, Laskorain eta Axularren artean, 20:45ean. Bihar, berriz, ondorengo norgehiagokak jokatuko dituzte: kantxa nagusian infantil mailako saskibalo partida izango da 10:30ean Take A eta Bren artean, eta 12:00etan kadete mailakoa, Take eta La Salleren artean. Arratsaldean areto futbol partidak izango dira: 16:00etan Gipuzkoako ligako partida Laskorain eta Koskaren artean, eta 18:00etan, Nazional B mailako partida Take eta Allerruren artean.

Beheko kantxan, bestalde, ondorengo areto futbol partidak izango dira bihar ikusgai:

09:15ean, eskola arteko ligaxkan, infantil nesken artekoa izango da, eta 18:00etan, infantil mutilen artekoa.

**Usabalgo futbol zelaian**  
Futbol zelaian 3 futbol partida ikusteko aukera izango da bihar: goizean, 09:30ean, kadete mailakoen artekoa izango da, Tolosa Cf eta Texasen artean. 11:00etan, gazteen ohorezko mailakoa izango da, Tolosa CFren eta Beti Gazteren artean. Eta 18:00etan, emakumezkoen ligako partida izango da, Tolosa Cf eta Intxaurdi taldeen artean, hain zuzen ere.



Erabiltzaile kopurua asko igo da aurtengo Inauterietan. I. ETXEBESTE

## 25.000 lagun baino gehiagok erabili du trena Inauterietan

**Garraioa** » Pasa den urteko Inauterietan alderatuz, %6,7 igo da erabiltzaile kopurua aurtengatik; Zaldunitan 19.850 bidaiari izan ziren.

### ERREDAKZIOA

Renfek 25.350 bidaiari garraiatu ditu guztira, Irun-Brinkola lineako Aldiriko trenetan Inauterietako egunetan. Hain zuzen ere, Zaldunita Bezperatik, Asteartitara arte batu dituzte Renfen bidaiari kopuru horiek, eta bertatik azaldu dutenez, «egun hauetan irabazitako bidaiari gehigarri horietako gehien-goak, batez ere, igandean, otsailak 3, eta igande eta astelehen gauean, otsailak 4, erabili dituzte trenak».

Izan ere, gaueko trenen aparteko zerbitzu etengabea ezarri zuten 22:00etatik 7:00ak arte, hiru jai-gaueko bakoitzean. Gauzak horrela, Irun-Brinkola lineako bidaiariek guztira 65 tren izan dituzte Inauterietan guztietan zehar.

### Bidaiari kopurua handituz urtetik urtera

Renferen lehendabiziko balorazioaren arabera, Tolosatik ateratzeko edota Tolosara joateko gaueko Aldiriko trenak erabili dituztenen kopurua, 2007ko Inauterietan zenbatutako kopurua baino %6,7 handiagoa izan da. Iaz, guztira 23.760 bidaiarik hautatu zuten Renferen Aldiriko zerbitzua jai-gauean leku batetik bestera joateko.

### Eguneko zerbitzu berezia

Joan-etorri gehien izan zuten gaueko Zaldunitakoa eta Astelenitakoa izan ziren. Baina, gaueko zerbitzu berezietan, Renfek Tolosatik ateratzeko edota Tolosara joateko eguneko Aldiriko zerbitzua indartu egin zuen otsailaren 3an, Zaldunitan. Egun horrek Renferen linea horretan ohikoa izaten den bidaiarien kopurua «izugarri areagotu» zuen, egun guztian zehar 19.850 bidaiari izan baitzituen.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

**HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle**

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu  
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

# Inauteriak eta gero ere badago zer eginik eta ikusirik Tolosan

**Kultura** » Otsaileko kultur egitarauaren baitan, asteburu honetan Asterix-en azken filmaren estreinaldia eskainiko dute.

## ESTI EZEIZA

Bi egun besterik ez dira igaro Inauteriak amaitsu direnetik, eta badi-rudi, orain, ez dagoela ezer egiteko eta dena itzalita dagoela. Baina hori ez da horrela, hilabete honetan ere, Inauterien ajea igarotzen laguntzeko, zenbait ekitaldi izango dira Tolosako eskenatoki eta areto ezberdinetan. Beraz oraingoan ere, ez da aspertzeko betarik izango.

## Aranburu Jauregia

- **Otsailaren 16a bitartean.** Charo Berra *Erroren Zuhaitza: bizia eta kolorea* pintura erakusketa izango da ikusgai.
- **Otsailaren 15etik martxoaren 29ra bitartean.** Tomas Hernandezen erakusketa.
- **Otsailaren 23tik apirilaren 5a bitartean.** Txetxo Gaztañagaren erakusketa izango da ikusgai.

## Kultur Etxea

- **Otsailak 8.** Dina Bilbao bidai

bekako irabazleen bidaiaren proiektzioa ikusi ahal izango da 19:00etan.

- **Otsailak 10-17-24.** Eskolarteko Xake Txapelketa jokatu da 09:00ak eta 14:00ak bitartean.
- **Otsailak 13.** Palestinako Kultur Zentruaren eskutik, dokumental proiektzioa 19:00etan.
- **Otsailak 18.** Odol-emaileen hileroko odol ateratzea 18:00etan.
- **Otsailak 18tik aurrera.** Lizardi kultur elkarteak antolatutako hitzaldiak, 19:00etan.
- **Otsailak 22.** Barre azkarraren kultur elkarteak antolatuta, hitzaldia izango da 19:00etan, *Barre egiten ikastea, bizitzen ikastea* da izenburupean.

## Leidor aretoa

- **Otsailak 8-11.** Zine estrenaldia: *Asterix en los Juegos Olimpicos.*
- **Otsailak 9-11.** Zinea: *Fracture.*
- **Otsailaren 14a.** Zine Foruma: *La balada de Cable Hoque* (San Pec-kimpah). 19:15ean eta 21:45ean.
- **Otsailak 15.** *Gaurko menua* izango da ikusgai (Dar-Dar).
- **Otsailaren 16a.** *Ni ez naiz txotxolo* haurrentzako antzerkia izango da 17:00etan, Teatrorat-en eskutik.
- **Otsailaren 16-18a.** Zinea: *La busqueda.* 17:00etan.



'Asterix en los Juegos Olimpicos' eta 'Fracture' filmak izango dira ikusgai asteburu honetan Leidor aretoan. HITZA

## ASTERIXEN AZKEN FILMAREN ESTREINALDIA

Otsailaren 8an estreinaldiko emanaldi berezia izango da 17:00etan, eta 19:30ean, Leidor antzokian. Sarrerak 3 euro balioko du.

Depardieu Obelix izango da beste behin. Asterixek, berriz, aurpegi ezberdina izango du honako honetan, Clovis Cornillacena alegia. Halere, Alain Delonen itzulera da albisterik onena zinemagintzarentzat, ezbairik gabe. Frantziar aktore polemikoa Julio Zesar izango da.

Horiez gain, mundu osoan arras ezagunak diren pertsona ugari esku hartu dute *Asterix aux jeux olympiques* filmari. Esaterako, Zinedine Zidanek, azken urteotako futbol jokalaririk onenetarikoak; Michael Schumacherrek, 1 Formulako gidaririk bikainenak; Jean Todtek, 1 Formulako Ferrariri etxeko kirol zuzendariak; eta Tony Parkerrek, NBAko San Antonio Spurs taldeko jokalaririk.

- **Otsaila 17a.** Haurrentzako zinea: *La busqueda.* 17:00etan.
- **Otsailaren 21a.** Zine-Foruma: *La boda de Tuya* (Wang Quan'an). 19:15ean eta 21:45ean.
- **Otsailak 22-25.** Zinea: *Los cri-*

*menes de Oxford* filma izango da ikusgai.

- **Otsailaren 23a.** Biarritz Baleta Jr.3-en emanaldia: Gai Beltza. Eki-taldia 22:30ean hasiko da.
- **Otsailaren 24a.** Haurrentzako

zinea euskaraz: *Piccolo eta Saxo* izango da ikusgai. Saioa 17:00etan hasiko da.

- **Otsailaren 28a.** Zine-foruma: Francisco Vargas zuzendariaren *El violín* filma izango da ikusgai. Bi saio: 19:15ean lehena, eta 21:45ean bigarrena.
- **Otsailaren 29tik martxoaren 3ra.** Zinea: *irina Palm* eta *Expia-cion.*

## Besterik

- **Otsailaren 22tik 24ra.** Ahoz aho, Ahoz kotasuneko nazioarte-ko Jaialdia ospatuko da Tolosan. Hau, Asvinenea, Arte Eszenikoen Sustapen eta Laborategiak antolatuko du. Leku ezberdinetan izango dira ekitaldiak, eta ordutegia zabalda izango da.

# Lanbide Heziketako eskaintzen informazioa Bluetooth-ez igorri

**Hezkuntza** » Gaur arratsaldien Eroski merkatal gunean egongo dira sare publikoaren eskaintzen berri emateko.



Ikaslanen baitan dago Tolosaldea Lanbide Heziketa Institutua. HITZA

## ERREDAKZIOA

Ikaslan Gipuzkoako Bluetooth gailuak eta teknologia berriak erabiliko ditu Lanbide Heziketako etalari munduan sartzeko Gipuzkoako LHko sare publikoak eskaintzen dituen aukeren berri emateko.

Asteburu honetan jarriko dute

abian Arrasate, Eibar, Irun eta Tolosako merkataritza-guneetan Ikaslan Gipuzkoa osatzen duten LH-ko 24 zentro publikoak eskaintzen duten heziketa eta garapen profesionalerako aukerak jende-ari helarazteko asmoa duen ekimena.

Gaur, Tolosako Eroski merkataritza gunean eramango dute aurrera ekimena, 15:30etik 22:00etara.

Ikaslan elkarte ordezkariek ekimena babesten duten Arrasate, Eibar, Txingudi eta Tolosako merkataritza-guneetako kanpoaldean egongo dira ostiralean arratsaldeko hiruak eta erdietetatik iluntzeko hamarrak arte, eta larunbatean goizeko harretatik iluntzeko hamarrak arte. Denbora horretan informazio-liburuxkak banatuko di-

tuzte interesatuen artean, eta, hala behar izanez gero, «bluetooth» birtartez euren mugikorrean prestakuntza-eskaintza eta okasio honetarako elkarteak egin duen sustapen-bideoa deskargatzen lagunduko diete. Gainera, teknologia berriak erabiltzea aukeratzeko dutenek ordenagailu eramangarri baten zozketan hartuko dute parte.

Ikaslan Gipuzkoa, Gipuzkoako Lanbide Heziketako Hezkuntza Publikoaren Institutu Publikoaren Elkartek 1993. urteaz geroztik garrantzi handia duen bere jarduerak, eta Gipuzkoako Lanbide Heziketako 24 ikastetxe publiko biltzen dira bertan. Honen baitan daude, Zizurkilgo Mendikoi-Fraisoro Nekazari-tza eskola eta Tolosaldea Goi Lanbide Heziketa zentrua.

**HAU GAZTERIA...!**

Gipuzkoan 30.000 gaztek baino gehiagok unibertsitate ikasketak dituzte

**JAKINA**



B | Blogteka info**Zenbat zabor sortzen dugun**

Agenda 21 dela eta, eskolan zenbat zabor sortzen dugun eta zenbat paper gastatzen dugun aztertu genuen. Horretarako egunero geletako, jangelako, irakasleen geletako eta patioako zaborra pisatu genuen eta erabilitako papera ere neurtu genuen. Bestalde, herrira ere jaitsi gara kaleetako edukion-

tziak zenbatzera, eta ikustera eza zer moduz zeuden: beterik edo hutsik, hondaturik edo ondo.

Zabor orokorra botatzeko edukiontzia berri-berri jarri dira herrian.

Eta oso ongi pasa genuela esan behar dugu.

**Doctor Fleming Ikastetxearen**

**Bloga**

<http://www.tolosaldeko hitza.info/blogak/fleming>



Fleming ikastetxeko ikasleak zaborrari buruzko lana egiten. HITZA

## KZgunean 'Ona' osasun txartel elektronikoa ateratzeko aukera Anoetan

### ERREDAKZIOA

Ona txartela doan egiteko aukera izango da gaurtik aurrera Anoetako KZgunean. Ona osasun txartel elektronikoa berria da, herri-erabilerak anitzekoa. Txartelarekin hainbat zerbitzutarako erabili daitezke: medikuaren hitzordua gordetzea, bajen datuak eskatzea, kontratazio-baldintzen orriak eskatzea, PFEZ bideratzea, zerga aitortpen telematikoak, datu fiskalen kontsulta, zorrak, errolda-agiriak lortzea, gidabaimenaren puntuak kontsultatzea, laneko biziitza kontsultatzea, banku-erakundeekin harremanetan jartzea...

16 urtetik gorakoek egin dezakete eta Osakidetzako txartela izatea derigorrezkoa da. Txartela egiteko KZgunean ostiralean 16:00etatik 20:00etara joan daitezke. Nortasun agiria eta Osakidetzako txartela eraman behar dira horretarako. Txartela erabiltzen ikasteko ere KZgunean bertan ikastarok egingo dira.

## L | Laburrak

### Gimp programaren ikastaroa KZgunean

**ANOETA** ● Gimp programaren (Photoshop programaren antzekoa) ikastaroa emango dute KZgunean. Irudi digitalak tratatzeko ikastaroa da eta guztira lau egun iraungo du, bakoitzean bi orduko saioekin. Martxoaren 7, 14, 21 eta 28an (ostiralak) izango dira egun horiek eta orduetara 18:00etatik 20:00etara izango da. Doakoa izango da ikastaroa eta udaletxean edo kiroldegian eman daiteke hilairean 29ra arte. Bestalde, Word, Excel, Acces edo beste mota bateko informatika ikastaroa egiteko interesa duenak esan dezala udaletxean eta taldea osatzen bada antolatuko da, Udaletik azaldu dutenez.

### Herriko festen eta Kultur Astearen inguruko bilerak

**ANOETA** ● Herriko festak antolatuko bilerak egingo dute datorren astelehenean, hilak 11, 19:00etan udaletxean. Egun eta toki berean, 20:00etan, Kultur Astea antolatzeko bilera egingo dute. Bilera irekiak dira eta Kultura Batzordetik dei egiten die herriko talde guztiei eta herritar orori bilera horietan parte hartzea.

## E | Elkarrizketa

**KORO DEL POZO** | Psikologoa

# «Haurrak gehiago ulertzea lasaitasun handia ematen du»

**Tolosa** » Udalak antolatutako guraso eskola martxan jarri zen atzo arratsaldean. Koro Del Pozo psikologoa da guraso eskola dinamizatzen duenetako bat.

**IMANOL GARCIA**

Koro Del Pozo (Donostia, 1959) psikologoa Andui Fundazioako kidea da. Fundazio hau arduratzen da Tolosako Udalak antolatutako guraso eskola dinamizatzeaz. Guraso eskolak hamar saio izango ditu eta atzo arratsaldean izan zen lehena; bertan izan zen Del Pozo. Beraz gain, beste bi ariko dira ere guraso eskola dinamizatzen: Txus Congil eta Aiora Perez de San Roman.

### Andui Fundaziotik egiten duzun lanean, zein helburu bilatzen dituzue?

Gure helburua da familiei, eraikitzen diren eta hezitzen duten heinean, ikusten dituzten beldurren eta gabezien aurrean gaitasunak eta errekurtsioak eskaintzea eta abileziak jorratzea. Guraso eskolatan lan egiteaz gain, eskolatan ere aritzen gara prebentzio lana eginez.

### Zergatik da hain garrantzitsua prebentzioa?

Euskal Herrian arazo asko egon ziren garai batean drogarekin. Askagintza sortu zen eta lan egin du drogaren menpekotasunaren inguruan. Prebentzioarekin lan egin nahi genuen, bizitzaren aurrean erabakiak hartzen ikasteko. Azken finean da nola kudeatzen ditugun aurkitzen ditugun arazoak. Jakin behar dugu nor garenean. Autoestima da jakiteko zein diren gure alde indartsuenak eta gure gabeziak. Horrek guztiak laguntzen dizu erabakitzeke ulean. Autonomoak izateko ni gai izan behar naiz bizitzan independente bat egiteko. Bizibanaiz nire gurasoen menpean... Landu egin behar dira ardura eta autoestima, balore batzuekin eta muga batzuekin, jakiteko non mugitzen garen.

### Nolakoa da guraso eskolaren dinamika?

Oinarri teoriko bat egon behar da eta gu gara dinamizatzaileak eta teoria guk ekarriko dugu. Baina guri interesgarriena iruditzen zaiguna da ikustea bakoitzaren zailtasunak zein diren eta handik abiatzea. Guk teoria guztia eman beharrean, interesgarriagoa da arazo bat mahai gainean jartzea eta hortik abiatuta ikusi zein diren errekurtsioak, zer gertatzen den, zertarako egiten duten hori haurrek,



L. GARCIA

guk zer sentitzen dugun eta guraso bezala zer egin dezakegun. Eta hortik iristen zara teoriara.

### Aurten talde bakarra sortu da eta adin ezberdinetako haurrak dituzten gurasoak daude bertan.

Pentsa daiteke errazago izango zela denak adin txikiko haurrak izatea. Hitz egiten bada haurren haserreetaz, talde guztiarentzat izango zen. Adin ezberdinetako seme-alaben guraso eskola bat dinamizatzea izan daiteke agian zailagoa, baina askoz aberatsagoa da. Ume txikien gurasoak direnak, nerabatasuna gertu dute, eta orduan ekartzen dituzte beraien bizipenak mahai gainera eta ikuspegi horrek neraberen gurasoak laguntzen die. Eta alderantziz, haur txikia duenak ikusterakoan beste gurasoak nola ari den kudeatzen bere seme-alabaren nerabatasuna, aldeaz aurretik egoera horretarako prestatzen joango dira eta prest zaudenean askoz errazago moldatzen zara.

### Badirudi guraso eskola batera joateko arazoak izan behar dituzela. Hori horrela da?

Hain justu, inoiz etortzen ez direnak azkenean etortzen dira kontsultara arazoekin. Guk nahi dugutik da oinarri bat jartzea eta hortik abiatzea. Guraso eskolatan normalean arazo larriak ez dira azal-

tzten. Zailtasunak bai. Zailtasun horiek jorratzen badituzu orain, gero gauzak errazago joaten dira. Ez du esan nahi seme-alabek arazorik ez duela izango, baizik jakingo dutela horiek kudeatzen eta gurasoek jakingo dutela nola lagundu. Ez dago arazorik gabeko bizitzarik.

### Hitz egin ohi da haur bat errazago edo zailagoa dela. Eta gurasoei dagokionez?

Haur batzuk beste batzuk baino eramangarriagoak izan daitezke. Baina gurasoek ere ez dugu denok berdin erantzuten. Agian esaten diogu haurrari ez oihurik egiteko edo lasaitzeko garrasi batekin. Horregatik guraso eskolan esaten nuen ispiularena. Batzuetan beuarek egiten dute gure ispiularena eta hori ikusi behar dugu gure burua.

### Gurasoak batzuetan errudun sentitzen dira.

Guraso bezala ez gara errudun sentitu behar. Egoerak dira direnak eta guk dakigu dakiguna. Horretarako etortzen gara guraso eskolara, irekitzera. Horrek laguntzen digu haurra gehiago ulertzen. Eta horrek lasaitasun handia ematen digu. Zerbait ulertzen duzunena bake handia ematen du; bake horretatik beste oinarri bat duzu sortzen diren arazoak kudeatzeko.

# 608.721 euro erabiliko dituzte herriko aurtengo inbertsioetarako

**Amezketak** » Kultur Etxeko inbertsio gastuaren urteanitzeko izaera onartuko dute bideragarria baldin bada.

## ERREDAKZIOA

Amezketako azkeneko ohiko bilkuran azken bi udalbatzetan erabakiak berretsi zituzten. Tartean, herri-bideen inbentarioari herri-tarrek jarritako alegazioen erantzunak eta honetan egin beharreko aldaketak, Ugarteko kanposantuan egin beharreko obra, Zumadi eskolako frontoiko obra eta *Euskal Herriaren eskubideen alde* eta Esait-en mozioa. 2008rako 608.721 euro onartu ditu Udalak eta jadanik Markel Olano Ahaldu Nagusiari egin diote diru eskaera.

Kultur Etxeko inbertsio gastuaren urteanitzeko izaera onartzea eskatu dute «bideragarria bada, gastua ekonomi ekitaldi batera baino gehiago hedatzen delako eta atalko egitasmotan banatu ezin delako». Aurtun 300.000 euro beharko lirarteke, eta legealdiko datoen hiru urtetan berdin. Udalbatzak «gehiago landu behar den gaia» dela aipatu ondoren, akordiora ez dira iritsi.

## Onartutakoak

Nitxoan kontzesioa edo ematea onartu egin dute; «eskatzan duenari ematea» erabaki dute, baldintzabatzuk kontuan izanik: 10 urterako epea eta 300 euroko kostua, herriaren azken erroldatua egotea eta 10 urte pasa ondoren, hartzailearen kontura gorpua aterabarko da.

## Torturaren aurkako mozioa

EAE-ANVK aurkeztutako «Igor Portu eta Mattin Sarasolak jasandako tortura larrien» aurrean, eta «euskal herritarren aurka erabiltzen duen torturarekin amaitzea» helburua duen mozioa onartu zuten. Inurritia alkateak Kimu Berri Taldearen izenean honakoa gehitu zuten: «Giza eskubideen alde» dagoela eta «eskubide urraketa guztiak salatzen jarraitzen dugu».

Mozio honetan «Udal honek argi salatu nahi ditu tortura kasu honen atzean dauden ardurak: tortura erabiltzen duten espainiar polizia indarrak, torturak agindu edo baimentzen duen Espainiako Gobernu, inpunitate osoa eskaintzen dion Justizia aparatua, baita tortura kasu hau isilarazten saiatu diren alderdi politiko zein komunikabideak ere».

«Udal honek, euskal herritarrek espainiar polizi indarren eskuetan jasaten duten Torturekin amaitu asmoz» honakoa nabarmendu nahi du: «Torturatzen dituzten es-



Aste honetan Markel Olano eta Maria Jesus Aranburu izan dira Amezketan zinegotziekin, herriko beharrak ezagutzen. Kultur-Gizarte Etxeaz, frontoietako obrez, paseatzeko bideaz eta interpretazio guneaz aritu ziren. N. URBIZU

painiar polizia indarrek zein inpunitatea bermatzen duen espainiar Justizia aparatua ez dute Euskal Herrian inolako zilegitasunik». Hortaz, «hauei babesa agertzea Tortura ahalbidetzea besterik ekartzen ez duenez, eragile politiko, sozial zein sindikalei babesik ez ematea eskatzen diegu».

Bereziki salatu nahi izan du «PSOEren Gobernuak Tortura kasu honi dagokionean agertu duen jarrera... gezurretan aritu dira Tortura hauek estali nahian, Guardia Zibilari erabateko babesa agertu eta inpunitatea bermatua izango delagindu dute».

Amezketako Udalak bat egin du «euskal herritarroei aplikatzen zaiGUN salbuespen legediaren amaiera, inkomunikazioaren amaiera, Audientzia Nazionalaren desagertzea». Bide beretik, Udal honek bat egin du «TATk aurkeztu eta

torturarekin amaitzea helburu duen zerrendarekin».

Azkenik, «tortura helburu politikoarekin» erabiltzen dela salatu du, «independentismoaren aurka eta Euskal Herriko eskubideen ukazioa iraunkortu asmoz». Hortaz, torturarekin, «eta gure eskubide urraketa guztiarekin bukatzeko marko demokratiko bat» behar dela adierazten du. «Euskal Herriaren eskubideak aitortu eta euskal herritarrok gure etorkizuna libreki eta aukera politiko guztien artean erabakitzea bermatua izango dugun marko demokratikoa».

## Batzordeetan esandakoak

Hainbat bilertan bildu dira batzordeak eta informazio gisa Mainer Romo hirigintza zinegotziak zera adierazi zuen, besteak beste, herriko saneamenduz: «Aldundiak adierazitakoaren arabera,

Amezketako kolektorearen obrak egiteko lehiaketara atera dute proiektua. Ibiur urtegiak Balia-rrain, Abaltzisketa eta Orendaingo ur-zikinak Ibiur aldera isuri ordez beste era batetara bideratzera deririgortu du. Honela, Abaltzisketako ur-zikinak Amezketarantz bildu behar dituzte, eta honek herriko saneamenduari eragiten dio».

Ondorioz, «Amezketako kolektorearen obrak ere orain egitera bultzatu dugu Aldundia». Itxura denez, «posible da, baina bai Abaltzisketako eta bai Amezketako ere, denboraren desfase handirik gabe egitea lortu behar da, ahal baldintza Aldundiak konpromiso hori hartzea lortuz».

Honekin lotuta, uraren kudeaketari dagokionez, gizarte ongizate eta zerbitzuen batzordeak Amezketarako ur kudeaketa ego-kiena zein den aztertze asmoz, datuak eman zituzten. «Amezketara Ur Kontsorzioan sartuz gero ondorengo 10 urteetan 461.000 euroko inbertsioa egingo luke Kontsorzioak». Edozein momentutan Amezketak ateratzeko aukera izango luke, beheko saretik bakarrik. Uraren kostua estolda eduki edo ez, horren arabera izango litzateke. Lehen kasuan 1,32 euro/m<sup>3</sup> eta bigarrean 0,87 euro/m<sup>3</sup>.

Zinegotzi batek uraren kudeaketarekin lotutako bilera edo hitzaldi bat egitea proposatu zuen informazio gehiago izateko asmoz eta beste ikuspegi bat jorratzeko aldera.

Kultur Etxeari buruzko lan taldea bildu zen eta kokapenari buruz eztabaidatu zuten, baina oraindik ez dago erabakirik. Dena den, dirulaguntzak lortzeko arkitetako egiten ari den azterlanetan, arauetan aurreikusirik dagoen toki hartuko dute kontuan behin-behineko kokaleku bezala.

## » INBERTSIOAK ETA KULTUR ESKAINTZAK

### Inbertsioak

- **Kultur Etxea.** 300.000 euro. Lekua erabakitzeke.
- **Frontoiak.** Eskolako, Ugartekoaren zorua eta plazan itxita dagoenari babes gehiago jarri: 162.808 euro.
- **Baserriko bideak.** Aitzio eta Arrieta baserriak: 84.853 euro.
- **Amezketari buruzko liburua.** 19.000 euro.
- **Antena telebista-wimax.** Ugarten: 14.000 euro.
- **Ugartera oinezko bidea.** 12.000 euro.
- **Elurra kentzeko pala.** 11.000 euro.
- **Etxebizitza plana.** 5.000 euro.
- **Guztira.** 608.761 euro.

### Kultur eskaintzak

- **Musika eskola.** 32 ordu daude pianoa, trikitixa eta panderoa ikas-

ten. Urteko aurrekontua 11.000 euro ingurukoa dute. Urteko ekitaldiak Kultur Astean eta ikasturte amaieran.

- **Pilota eskola.** 23 lagun daude eta urteko aurrekontua 6.000 euro inguru da.
- **Dantza eskola.** 5 lagun daude eta Beasainera joaten dira. Deialdi bat egingo da jendea animatzeko.
- **Memoria tailerra.** Berria da. 22 lagun bildu dira eta talde 1 edo 2 izan gero erabakiko da. Horren arabera aurrekontua aldatu egingo da.
- **Memoria tailerra.** Urte osoan zehar asteartetan.
- **Udako ludoteka.** Guraso elkar-teak astean hiru aldiz jartzeko asmoa dutela aipatu du, 212 euroko kostuarekin.
- **Herritar batzuk eskatutakoak.** Eskulanak, hitzaldiak eta dantza ikastaroak.

## L Laburrak

### 7e Pasa txapelketako biharkoak Orendainen

**ALEGIA** » III. Zazpie Pasa pilota txapelketa asteburu honetan hasiko da, bihar, baina ez dute Alegian jokatuko, Orendaingo pilotalekuan baizik. Bikoteak, beraz, han izango dira, Alegiko Elorri beste umeen pilota txapelketa baitago garai berdinean. 15:30etik aurrera ikusi ahal izango dira.

### Hauteskunde orokorretarako mahaiaik

**IKAZTEGIETA** » Datorren martxoaren 9an izango diren hauteskunde orokorretarako Hauteskunde Mahaiaik osatzeko zozketa egingo dute Ikaztegiatan. Hilaren 11n, asteartea, 10:00etan egingo dute udaletxeko bulegoetan bilduko dira.

### Karrozetako sari banaketa gaur egingo dute

**TOLOSA** » Tolosako Inauterietan ateratako karroza eta konpartsen artean lehiaketa egingo da urtero. Bada, aurtengo lehiaketaren emaitza eta sari banaketa ekitaldia gaur bertan izango da. 19:30ean Udaletxeko batzar aretoa egingo dute ekitaldia. Irekia da, joan nahi duenarentzat.

### Jose Luis Lopez artistaren margolanak jubilatuenean

**ALEGIA** » Alegiko jubilatuen tabernan hilabete osoan zehar Jose Luis Lopez tolosarraren artelanak izango dira ikusgai, asteartetik igandera bitarte, tabernako ordutegiaren baitan. Bertan, Tolosako eta Donostiako hainbat paisaia ikus daitezke, kolore biziz egindakoak.

### Intxurreko lurraldekakoak etxean ariko dira bihar

**ALEGIA** » Intxurreko futbol eta areto futboleko jokalariek bihar eta etzi ariko dira, baina etxean, lurraldekakoak bakarrik. Bihar lurraldekako 16:00etan Elorri ariko dira Sorluzeren aurka. 12:00etan Allurralde futbol zelaian kadeteak ariko dira, kopa jokatzen, eta senior mailako neskak Ordizian ariko dira 18:15ean. Etzi, berriz, jubenilen txanda izango da 14:00etan, Martutenen (kopa jokatzen).

### Udaberri Txapelketako kadeteak gaur Bidegoianen

**PILOTA** » Gaur Rurrera-Saiatz eta Zazpi-Itturriko kadeteak banaka Bidegoianen ariko dira Udaberri Txapelketaren baitan, 19:30ean. Ondoren, Euskadiko Kluben arteko kadete bat ariko da Zugarralde pilota eskolakoaren aurka. Bihar, berriz, 10:30etik aurrera Tolosako Beotibarren ohorezko seniorra, seniorra eta 22 urte azpikoak ariko dira hirur partidan, Igorre, Paz Ziganda eta Ilunpe aurkari izanik.

## Hurrengo urtera arte!



### » Zilarrezko Jaurtiketa

Jon Altuna

Ostegunean hasi eta astearte-raino iraun zuten egunek, egun polit eta ahaztezinak izan dira. Tarte honetan gipuzkoarren arteko derbia izan genuen Anoetan. Giro polita bizi izan zen harmailetan, hogei mila arima bildu ziren Donostian (Gipuzkoa). Partida ez zen beste mundukoa izan, baina zirrara eta polemika ugari egon zen. Oraindik ere, eztabaida sortu zuten jokaldietaz hitz egiten da. Kontuak kontu, banako emaitza lortu genuen, markagailuan aurretik jarri ginen arren. Gustura egoteko emaitza, eta ea honek azkenaldian generatzen bolada txarra aldatzeko balio duen.

Partida eta astea amaituta, Inauterietan bi egun buru-belarri sartzeko aukera izan dugu. Mozorrotxea eta parranda, dena bat izan dira. Jana, edana, dantza egin, konpartsak ikusi, barre egin, zezen plazako xarma bereziaz gozatu... festabereziak direla argi dago.

Larunbaterarte, partida zela medio, aprobeixatu ez genuena hurrengo bi egunetan aprobeixatzen saiatu gara, eta lortu dugula esan daiteke. Hala ere, gauza on guztiak bezala, hauek ere amaitu dira. Urtero bezala momentu polit eta ahaztezinak biziko zituen jendeak, orain tristura antzeko bat nabaritzen da amaitu direlako, baina gauza bat pentsatu: jadanik gutxiago geratzen dela hurrengo Inauterietarako.

## Iragarki laburrak

### SALGAI

■ **Adosatua.** Lurre auzoan adosatuta ederra. Sukaldea, jangela, 2 terraza, jardina, balkoia, 4 logela, 3 bainugela, garaje handia eta guztiz hornitua. 609 47 89 88.

### BESTELAKOAK

■ **Txakurkumeak.** Txakurkumeak oparitzen ditugu. 618 25 49 71.

@ **Eztabaida.** Sartu gure webgunean eta eman zure iritzia. Gai ezberdinak aurkituko dituzuen bertan, besteak beste inauterietan ingurukoak. Sartu eta eman zure iritzia: Zein da Tolosako Inauterietan ikusi duzun moztarrik originalena, erakargarriena edo politena?:

[www.tolosaldeko-hitza.info](http://www.tolosaldeko-hitza.info)

# Mendi irteera antolatu dute etzirako herriko bi taldek

**Ibarra** » Haitzetan Raju eta Bai Euskal Herriarik antolatutako ekimenaren barnean, laugarren bidaia izango da etzikoa.

### ASIER IMAZ

Ibarrako bi taldek elkarlanean, Bai Euskal Herriari eta Haitzetan Raju mendi elkarrekin, mendi irteera antolatu dute etzirako, iganderako. Egun pasa egiteko asmoz, herriko eta eskualdeko mendizaleak gonbidatu dituzte Bizkaiko «paraje eder bezain ezohiko bat» ezagutzera. Irteera 07:00etan izango da Ibarrako San Bartolome plazatik. Autobusean joateko aukera ere jarri dute antolatzaileek.

Bi taldeek *Euskal Herria ezagutzuz, lurraldetasuna sustatuz!* ekimenaren iragan irailean jarri zuten martxan. Asteburu honetan egingo duten mendi irteera irekia, ekimen horren barnean egingo den laugarren txangoa izango da.

### «Bizkaiko paraje ezhoikoa»

Lapurdi hasi ziren *Euskal Herria ezagutzuz, lurraldetasuna sustatuz!* ekimenaren lehen urratsak 2007ko irailean. Ondoren Xiberon barrera ibili ziren egun pasa urrian. Azaroan berriaz, Nafarroako Bardeak izan zituzten jomuga, bertan bizikletaz ibilaldi «bikaina» egin zutelarik. Laugarren urratsak Bizkaia eta Burgosen (Espainia) arteko mugeraino eramango ditu etzi bertara joatera animatzen diren guztiak. «Igandean Euskal Herria eta Espainia banatzen dituen mendi katean egingo dugu egun pasa, Ordunteko mendi katean hain zuzen ere. Ibilaldiak bost ordu eta erdi iraungo ditu gutxi gora behera, baina familia giroan egiteko moduko izango da, hasieran malda baldin badago ere, ondoren erabat laua eta lasaia baita ibilbidea».

### Autobusean joateko aukera

Mendi ibilaldira joan nahi duenak, aukera ezberdinak izango ditu, «beti bezala norberak bere bidaia antola dezake eta hasieran edo bertan besteekin elkartu», hala eta guztiz ere, autobusean izena ematea gomendatu dute antolatzaileek, «bidaia lasaia izan dadin». «Irteera Ibarrako plazatik izango da etzi, 07:00etan. Bizkaiera denok bildu orduko irtengo gara giro paregabe. Karrantza (Bizkaia) inguruko Lanzasagudas (Bizkaia) herrira heldu eta Balgerria igoko gara ondoren, Kolitzaraino iritsiarte. Hemendik Balmasedara (Bizkaia) jaitsiko gara».



Haitzen Raju eta Bai Euskal Herriar taldeko kideak ekimena aurkezten. HITZA



'Euskal Herria ezagutzuz, lurraldetasuna sustatuz!' Hendaian. HITZA



Orain artean egindako azken irteera; bizikletaz bardeetan barrena. HITZA

### «Denentzat zabaliko»

Lapurdi, Xiberona, Nafarroa eta orain Bizkaia. Haitzetan Raju eta Bai Euskal Herriar antolatzaile taldeek jakinarazi dutenez, ondoren Araba etorriko da, martxoan hain zuzen ere.

Ekimenak apirilean jarraituko du, Behe Nafarroa mendi irteera berri bat antolatuko delarik. Ondoren, maiatzaren 25ean, Gipuzkoan egingo da zarpigarren eta denboraldiko azken irteera. «Helburua Euskal Herriko lurralde ezberdinek zertxobait ezagutzeko da. Joaten garen herrietako jendearekin

harremanak egitea ere gustatuko litzaziguke eta horretan gabilta lanean. Adibidez Lizarrako (Nafarroa) jendearrekin bidaiaren bat edo loturak sortzea gustatuko litzaziguke gutxien gutxienik. Bertako mendi talde edo beste elkarteekin harremanetan jarriaz eta horrela lekuan lekuko talde edo jendearrekin».

Ekimen hauetan parte hartzeko deia egin dute azkenik, «besterik gabe, mundu guztientzat zabalik den ekimen bat dela gogoratuz, denak animatzen ditugu etzi egingo dugun mendi irteerara».

## 230 kiloko harria esku bakarrez jasotzen saiatuko da Perurena II.a

**Leitza** » Inaxio Perurena eta aizkolariak izango dira etzi 12:15etik aurrera Getxon ospatuko den jaialdian.

### A. IMAZ

Inaxio Perurena leitza gaztea marka berria jartzen saiatuko da etzi 12:15etik aurrera Getxon (Bizkaia). Perurena II.a 230 kiloko harritzarra esku bakarrez jasotzen ahalegin duko da bost minutuko txandan.

### Aitaren 267 kilotatik urrun

Etzi Inaxio Perurenak 230 kiloko harria jasotzen badu, bigarren markarik onena ezarriko luke, nahiz eta lehendik berak marka hori jarria duen 225 kilokoarekin. Bost kilo jango dizkio aitari baina oraindik urrun geratuko da, izan ere, Iñaki Perurenak 267 kiloko harri jasotzen da hirugarren, errezildarrak 218 kiloko harri jasotzen esku bakarrez.

### Jaialdian aizkolariak ere bai

Getxoko jaialdian Perurena II.a gain, aizkolariak ikusteko aukera ere izango da. Urrezko Aizkolari Binakako Txapelketaren barnean, final erdiak jokatu dituzte elite eta gazteen mailan.

Urrezko kategorian, Donato Larretxea eta Aitzol Atutxa bikoteak, Floren Nazabal eta Ugaitz Mugerza izango dituzte arerio, gazteetan berriaz, Ohian eta Garikoitz Larretxea lengusuek osatutako bikoteak Julen Kañamares eta Jon Rodrighez segobiaria izango dituzte aurrean.

## Laburrak

### Usabal kiroldegiko hidromasajea itxita

**TOLOSA** • Tolosako Usabal kiroldegiko arduradunek jakinarazi dutenez, kiroldegiko instalazioen barnean aurkitzen den hidromasajea, otsailaren 17ra arte itxirik egongo da.

### Garaipen garrantzitsua Ibarra FSK etxetik kanpo

**IBARRA** • Ibarra Aretto Futbol taldeak garaipen garrantzitsua lortu zuen etxetik kanpo azken jardunaldian, 4-5 Sestao taldearen aurka. Kristian Dabila eta David Pradosek bina gol lortu zituzten eta Igor Zabalok bat. Aipatzeko da ibarretrek azken minutuan lortu zutela garaipenaren gola.



Asteartean Iruñean egindako aurkezpenean Koldo Sebastian (Kultur sailekoa), Pablo Roncal (CAN) eta Josema Leitza (Bertsotzale Elkartekoa). HITZA

» ZENBAIT DATU

- **Gai-jartzaileak.** Aingeru Ilarramendi, Alaitz Rekondo, Amaia Errasti, Fernando Amustegi, Helios del Santo, Jone Arraras, Manu Legarra, Miren Bidarte, Nekane Elu eta Rosita Anakabe.
- **Aurkezleak.** Alaitz Rekondo eta Mikel Mundiñano Zato.
- **Epaileak.** Ekintza Landa, Jon Abril, Jose Etxanobe, Joxe Urroz, Nerea Bruño eta Saioa Mitxelena.

**Gaur egin beharreko lana**

- **Binaka.** Gaia emanda hiruna bertso zortziko handian.
- **Binaka.** Gaia emanda hiruna bertso zortziko txikian.
- **Bakarka.** Hasierako puntua emanda bina bertso zortziko txikian.
- **Bakarka.** Gaia emanda bina bertso doinu eta neurri librean.

handiena izan da aurtengoa. Garai batean ere parte-hartzaile asko izaten ziren, Ipar-Euskal Herriko bertsolariek parte hartzen zutenen».

Bertsolarien partaidetzak gora egiteaz gain, eskualdeetako ordezkartza ere zabalagoa da aurten. Orain arte parte-hartzaile gehienak Baztan eta Bortzirietakoak izan ohi ziren, baina aurten Ultzamako (Ekaitz Astiz), Malerreko (Alazne Untxalo, Iker Gorrosterazu eta Ander Fuentes) eta Aurtizeko (Aimar Karrika) bertsolariak ere bertan izanen dira.

**Finalurrekoak**

Otsailaren 16an Iruñean lehenengo finalurrekoa eginen dute eta Julien Zelaieta, Erika Lagoma, Oier Laikuntza, Bittor Elizagoien eta zenbait aldaketa egin behar izan dituzte antolakuntzan eta bi kanporaketa antolatatu dituzte, aurtengoberrikuntza nagusia hau izanen delarik. Bi kanporaketa hauetan lehen aldiz parte hartzen dutenak, iaz finalurrekoetan sartu ez zirenak eta urte batzuetan partu ez dutenak lehiatuko dira (gaur, Leitzan eta bihar Iturenen). Gontzal Agotek azaldu duenez, «aspaldiko urteetako parte-hartzaile kopururik

Orain dela bi urte finalerdietan Leitzan abestu nuen eta txapelketarik hoberena egin nuen orduan. **Zure buruan bilakaera ikusi al duzu urte hauetan?**

Bai, konzentratzen ikasten duzu, bertsoak errazago nola egituratu, elkarrizketa bat bertsotan nola jarraitu... Beti ikasten dituzu gauzak. **Badago gaien bat bereziki gustuko duzuna?**

Ez, berdin zait. Hori bai, aldea egoten da abesteko garaian zer gai tokatzen zaizun, gauzak errazago esateko orduan. Bestalde, gustatzen ez bazaizun paper bat baduzu, gehiago kostatzen zaizu kantatzea, guardia zibila bazara, esaterako, eta zure gaia baldin bada gaurte bat atxilotzen duzula, eta horrela pentsatu ez arren, bere paperean jarri beharra zara.

# Leitzan abiatuko da gaur 2008ko Nafarroako Bertsolari Txapelketa

**Bertsolaritza** » Gaur abiatuko da 2008ko Nafarroako Bertsolari Txapelketa Aurrera elkartean, 21:30ean.

**NAIARA GARZIA**

Gaur abiatuko da Nafarroako Bertsolari Txapelketa 37. edizioa, Leitzan, 21:30ean, Aurrera elkartean. Finala martxoaren 15ean izanen da, Elizondoko Lur dantzalekuan, eta txapelketak orotara 6 etapa izanen ditu: 2 kanporaketa, 3 finalurreko eta finala. Diego Riaño leitzarra, Juan Mari Lopez, Iker Iriarte, Ekaitz Astiz, Aimar Karrika eta Iñaki Aleman izanen dira gaur gaueko 21:30ean Aurreran leihatuko direnak. Migel Mari Elosegri Luze izanen da Riañorekin ba-

tera txapelketan parte hartuko duen beste leitzarra, baina hau hirugarren finalurrekoan sartuko da txapelketan (martxoaren 15ean, Beran).

**Bertsolari hagitz gazteak**

Asteartean egin zuten 2008. urteko txapelketaren aurkezpena Iruñean, eta bertan 25 parte-hartzaileen gaztetasuna azpimarratu zuten. Gontzal Agote Nafarroako Bertsotzale Elkarteko kideak ere ideia bera azpimarratu du. «Ia-ia guztiak 30 urtetik beherakoak dira, eta dezente, 25 urtetik beherakoak». Agoteren ustez, belau-naldi berri bat datorren seinale da hau. «Bittor Elizagoien da beterranoena, berarekin parte hartu zuten bertsolari gehienak ez daude». Belau-naldi aldaketa hau ez dela kasualitatez gertatu dio Agotek.

«Lan garrantzitsu bat egon da transmisio arloan. Alde batetik bertso-eskolena, eta bestetik hezkuntza departamentuak eta Udalek martxan jarritako ekimena». Izan ere, ekimen honi esker D ereduko ikastetxe publikoetan bertsolaritzaren modulo bat jarri dute eta honi esker Nafarroan 1.000 ikasle inguruk bertsolaritza ikasten dute. Txapelketan parte hartuko duten 25 bertsolariatik 6 lehenengoz aurkeztu dira.

Belau-naldi gaztea atzetik dator beraz, eta asteartean egindako prentsaurrekoan txapelketak bertsolari gazteentzako duen garrantzia azpimarratu zuten. «Urtean 140 saio inguru egiten dira herrialdean, baina horietako hainbatetan ez dute Nafarroako bertsolariek parte hartzen, kaso askotan nahiko ezeguzunak direlako». Zentzu

honetan, bertsolari hauentzako txapelketa «erakusleio» bat da.

Aurten, berriaz, azkeneko 4 urte-tan txapela eskuratu duen bertsolariak, Xabier Silveira Etxeberriak, alegia, ez du parte hartuko.

**Partaidetzak, gora**

Aurtengoa partaidetzak gora egin du nabarmen, hori dela eta zenbait aldaketa egin behar izan dituzte antolakuntzan eta bi kanporaketa antolatatu dituzte, aurtengoberrikuntza nagusia hau izanen delarik. Bi kanporaketa hauetan lehen aldiz parte hartzen dutenak, iaz finalurrekoetan sartu ez zirenak eta urte batzuetan partu ez dutenak lehiatuko dira (gaur, Leitzan eta bihar Iturenen). Gontzal Agotek azaldu duenez, «aspaldiko urteetako parte-hartzaile kopururik

## «Nire helburua gaur finalerdietara pasatzea da eta hori lortzen badut, finalera iristea»

**DIEGO RIAÑO** Bertsolaria

**Leitza** » Bi leitzarrek parte hartuko dute txapelketan, Migel Mari Elosegik eta Diego Riañok, azken honen txanda gaur izanen delarik.

**N. GARZIA**

Diego Riaño (Leitza, 1980) gaurko kanporaketan beste 5 bertsolarirekin lehiatuko da Aurreran. Lehenengo urtean «nahiko gaizki» aritu

zela azaldu du leitzarrek, baina baikor dago aurtengo txapelketari begira.

**Aurten zure burua nola ikusten duzu?**

Ni nahiko irregularra naiz, konzentratzea kostatzen zait, batzuetan egun oso ona izaten dut eta beste batzuetan gehiago kostatzen zait, baina nahiko ongi ikusten dut nire burua, baikorra izanen naiz.

**Aurten jende gaztegoak hartuko du parte. Hori zuentzat eta ber-**

**tsolaritzarentzat mesedegarria izanen dela uste al duzu?**

Mesedegarria niretzat, txapelketarentzat eta bertsolarientzako orokorrean. Ongi etorriko da jende gaztea sartzea. Niri gustatzen zait aurpegi berriak ikustea. Denontzako hobe izanen dela pentsatzen dut.

**Zer ematen zaizu hobekien, bertso alaiak, tristeak...?**

Niri umorea gustatzen zait, triste jarri behar denean ere triste jarri

behar da, baina umorea gustatzen zait bereziki.

**Zure helburua txapelketa hone-tan zein da?**

Pausoz pauso joaten naiz. Nire helburua gaur finalerdietara pasatzea da, eta hori lortzen badut, finalera iristea. Baina finalera pasako banintz helburua ez zen izanen hau irabaztea, saio polit bat egitea baizik.

**Kanporaketa Leitzan izateak ur-duriago jarriko zaitu?**



12°  
7°

GOIZA EGUZKIA  
ARRATS. EGUZKIA  
BEROENA 12°  
HOTZENA 7°

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Noelia Lataburu  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefona:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko hitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.  
**Anoetalea:** 687 410 022. anoetaldea@tolosaldeko hitza.info.  
**Ibarralde:** 687 410 032. ibarralde@tolosaldeko hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.  
**Leitzaldea:** 687 410 118. leitzaldea@tolosaldeko hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak**  
**S.L.ko kideak:**

**BERTAKO**  
HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta  
Leitzaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai**  
Euskarari

**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Jaiak

■ **San Blas.** San Blas auzoko jaiak: Diskoia izango da San Blas auzoan 18:30etik 20:30eran, auzoko jaien barruan. Horrekin batera, toka txapelketa, meza nagusia eta bedeinkapena, bertsolariak, haur jolasak, erromeria... Antolatzailea: Emendek elkarte.

■ **Tolosa.** Aurtengo Inauterietako karrozen eta konpartsen lehiaketako sari banaketa egingo dute gaur 19:30ean, udaletxeko areto nagusian.

### Deialdiak

■ **Albiztur.** Hilaren 23an, Santa Marinako Segoretxe-berri jatetxean egingo den bertso afarirako sarrerak salgai daude, 27 euroren truke. Bertsotan, Zubeldia eta Peñaigarikano arituko dira. Sarrerak, jatetxean bertan, Albizturko Udaletxean eta 665 74 63 23 telefono zenbakira deituta eros daitezke.

■ **Altzo.** Altzoko Udaletxean ENHA tramitatzeko aukera dago. 15 euro, 3 argazki eta errola agiria behar dira horretarako.

■ **Hernialde.** Hilaren 9an ehiza txapelketa jokatuko dute Hernialden, herri mailan. Lehen hiru sailkatuak hilaren 16an Amasan eskualdeko kanporaketara sailkatuko dira. Izen-ematea, udaletxean (943 654494). Antolatzailea: Ehiztari onak elkarte.

■ **Ibarra.** *Bame bametik, Ibarra* izenburupean Ibarri buruzko DVDa jarri berri du salgai dago Benu Izagirre kultur etxean eta udaletxean 6 eurotan. Bertan, herriko ohitura, txoko, bizilagun, eraikin, auzo eta mendi ezberdinak ikus daitezke irudien bidez. Antolatzailea: Udal Kultur Batzordea.


### Erakusketa

■ **Tolosa.** Charo Berra Erroren *Zuhaizta: bizia eta kolorea* pintura erakusketa dago ikusgai Aranburu Jauregian. 17:30etik 20:30era izango dira bisita egunak, jaieguna eta astelehena izan ezik. Antolatzailea: Udal Kultur Batzordea.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Santamaria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 654610.  
■ **Leitza.** Campos, M.Z. Elbarren, 52. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneren eta iritzien erantzunik.



## Oargikoen datozen irteerak, prest

**TOLOSA** ■ Inauterietako gehiegikerien ostein, kirola egitea baino hobirik ez da. Oargi mendi elkarteko ere ondo dakite hori, eta datozen bi asteburuetarako ekitaldiak antolatu dituzte. Hala, hilaren 16an eta 17an

Formigalera joango dira, iraupen eta alpino eskia praktikatzera. Astebete beranduago, berriz, (hilaren 23, 24) Moncayo mendia igoko dute (2.314 metro). Izen-ematea 637 830380 zenbakian egin daiteke.

## Inauteriek zapore gazi gozoa izan dute Tolosa Aralarrentzat

**Tolosa** ■ Bi luzapen behartu zituzten tolosarrek baina garaipena ez zen etxean geratu azkenean.

### ERREDAKZIOA

Garaipenaren bidera jarraitu ezinik da Tolosa Aralar. Inauterietan bete-betean, hau da, larunbatean, zazpigarren porrota jarraian jaso zuen Usabalen jokatu zuten norgehiagokan. Partida guztian borrokatzen aritu arren, 16 puntuko desabantaila bati buelta eman arren, bi luzapen behartu arren azkenean ezin eta beste porrot bat poltsikora. Partida honetarako, taldeak Gonzi eta Kaiet-en bajak izan zituen. Lehena Madril aldera joan zen skouting lanak egitera eta bigarrenak lan kontuak zituen tar-teko.

### Bigarren faseko helburua, mantentzea

Bigarren faseari begira, eta azken jardunaldiaren ostein taulari begiratu gero, tolosarrek maila mantentzeko fasea jokatuko beharko dute martxoetik aurrera.

Datorren bi partidak etxetik kanpo jokatuko ditu Tolosa Aralarrek. Datorren astean, igandean goizeko 12:15ean jokatuko dute Arriorriagan, bertako Padura taldearen aurka.

## A Agurrak

agurrak

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

urtebetetzeak  
urrezko ezteiak  
ezkontzak  
jaioberriak  
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak